

LEHEN URTE ETA IKASKETAK

Ama Manazik hiruzkiak munduratu zituen 1888ko abenduaren 6an Orixeko "Iriarte" baserrian, eta, herrian hirurentzat inuderik ez eta, Orixe amaordeko Arrosak hezi eta hazi behar izan zuen Huitzin. Han, nekazaritza eta artzantzan igaro zituen bere lehen hamazazpi urteak, eta Huitzin bi gauza ikasi zituen, errotik ikasi ere: batetik, euskara freskoa herriaren ahotik edoskia eta, bestetik, otoitzerako lehia bizia, amonordeko Mari Axuntxiengadik.

Mutil argia izaki, herriko apaiz eta maisuaren eraginez, 1905ean Xabierreko jesuitetan sartu zen. Xabierren bi urte eginda gero, 1907an Loiolara pasatu zen bi urteko Nobiziadua egiteko eta segidan Humanitateak urtebete bat ikasteko. Euskal lurraldea utzi eta, 1910ean, Burgos-ko "La Merced" ikastetxean bi urtez klasikoak, bereziki grekoak eta



latinoak, ikasi zituen. Burgos-en Erretorika 1912an bukatu eta Oña-n hiru urteko Filosofi ikasketak egiteari ekin zion. Maisutza aurreko ikasketak, beraz, 1915ean burutu zituen, 29 urterekin.

Ondoren hasten da Orixek berak "zazpi urte beltzak" deituko aroa, Comillas-en eta 1917tik aurrera. Jesuitek hiru urteko maisualdia izan ohi dute. Orixek, ordea, sei bete zituen zeregin horretan (Comillas, Carrión, Tuter a eta Xabier). Gramatika, Prezeptiba, Literatura eta Grekoa irakatsi zituen. Oña-n Teologiako hirugarren ikasturtea hasi eta berehala (1823-1924), ikasketak eten erazita, Xabierrera bidali zuten, eta handik etxera. Ez zuen inoiz jakin garbi zergatik.

Loiola. Santutegi honetan eman zituen Orixe-k bere ikasturteetako zenbait (1907-1909).



GERRAURREKO LANAK

Berriro kaleratu baino lehen ere ezaguna zuten euskaltzaleek Orixeren izena *Jesus´en Biotzaren Deya*-n eta RIEVen egindako lanengatik. Hortaz, Errepublika aurreko ondoko urteak euskal lanetan eman zituen, Bilbon: 1923-1928 epealdia Euskaltzaindian, R. M. Azkue eta Olabideren ondoan, eta 1928-1931 epealdia, berriz, *Euzkadi* egunkarian, euskal orriaren zuzendari gisa.

Gerraurrea, 1931tik aurrera, Orixan egin zuen "Euskaltzaleak" elkartearen enkarguz *Euskaldunak* poema nazionala lantzen. Gerrate zibilak bere sorterrian harrapatu zuen, eta San Kristobaleko gartzelan sartu sei hilabetez. Handik atera eta, berriro atxilotzera zetozkienei ihes eginez, Ipar Euskal Herrian babestu zen 1938an.

"Gogortzanea" baserria, Orixan: Hemen idatzi zuen "Euskaldunak poema" (1931-1935).



ERBESTEALDIA

Erbestealdi luzea bezain malkartsua tokatu zitzaion bizitzea (1938-1954). Lehen urteak Ipar Euskal Herrian eta hemendik hurbil egin zituen, askotan noraezean: Donibane Lohizunen bi urte (1938-1940), Saubion-en hiru (1940-1943), Betharraman-en beste hiru (1943-1946), Bidarrain bi (1946-1948) eta azkenik, berriro Donibane

Lohizunen (1948-1950). Alemanak Frantzia okupatu zutenean (1940), Orixe Gurs-eko zelaian barneratu zuten, hiru hilabete t'erdi. Dantza eta kantu, zelai hark ez zion oroitzen txarra utzi. Azken lau urteak (1950-1954) Amerikan egin zituen: sei hilabete Guatemalan, eta beste denboraldi guztia El Salvador-eko Zaragoza herrian. Hango lurraldea biziki gustatu zitzaion eta lanerako giro egokia aurkitu zuen, aukerakoa.

3



Ezker-eskuin: Andima Ibinagabeitia, Jokin Zaitegi eta Orixe (Guatemala, 1954), beratu Europara itzuli aurreko egunetan.



AZKEN URTEAK

Bere bizitzako azken zazpi urteak han eta hemen egin zituen Orixek, lekuz aldatuz: 1956a arte Lazkaon, gero Tolosan eta urte horren azken aldera Orixan; 1958tik aurrera, J. M. Aranalde ilobarekin, Arama eta Añorgan, 1961ko abuztuaren 9an azken herri horretan hil zen arte. Bere herrian, erbestean bezalaxe, nahikoa erromes ibili zen. Baina beti lanerako gosez. Herriratzean, beste askori gertatutakoa gertatu zitzaion hari ere: aurrean zeukan Euskal Herri hura ez zela gerraurrean ezagutu zuena bezalakoa. Gerrate ondoko belaunaldi berriak jadanik bere sarrera egina

zuen euskal munduan eta Orixeri arrotz eta arbuigarri egiten zitzaizkion luma gazte horien hainbat jokabide eta pentsamolde. Orixe garai bateko autore gidaria izatetik autore miretsia izatera pasatu zen. Eta halaxe izanez itzali zitzaigun (P. I.).



Lazkaoko Beneditarren Monastegia: "Baditut etxe artan maia eta ogea ta Bibliotekako giltza" (Orixek, 54-VIII-16).




IDAZLEAREN ERRETRATUA

Orixe gizona, nortasun bortitzekoa izaki, izakera berezikoa genuen. Pertsona arras minbera, sentikorra, batzuetan zakarra ere bai. Agian horregatik deituko zuten "basurdea". Begietan malkoa bezain aise ohi zuen mihi-puntan purrustada. Baina, eta hementxe dagoke Orixeren nortasuna ondoenik mugatzen duen ezaugarria,

bere buruarekiko eta lagunerekiko zintzo baino zintzoago zen. Aurpegi bakarrekoa esan nahi da. Zintzotasun honen adierazle dira Orixeren bizitza itxuratu zuten alderdi hauek:

"Ezoeri edo 'gota'k gogor jo nau iru ilabete auetan eta ez dit barkatzen" (54-VI-I).



... ianuen. Suatemalara.
... dia da! - Fran en. Lati ate dabil?
... ilabete auetan eta ez dit barkatzen. B
... ele ba nua, emendik oi ilabetea eraso jau
... ? Praindik ez da ikaratsuko baring bari Kerke
... ke ez ezalik egin pake ibili: utzian, sabel
... rou bait sara gerozi auetan. Fran go bazu
... ilika ezin ibili. Ordez puz ez bizi in itra
... k ofiteko.



A. Labayen-ekin Tolosan (1959). Orixe-k lagunarte hurbil leiala izan zuen: Lizardi, Labayen, Zaitegi, etab.

GIZON MINETAN ZAILDUA

Orixe beti izan zen gizon eria. Hezueriak gazterik hartu zion gorputza. Jadanik jesuitetan, burukominen handiz, eskolak askotan hutseginez burutu behar izan zituen bere ikasketak. Filosofia osoa, zehazki, beste adiskide batek albotik irakurriz, entzumenaren poderioan, ikasi zuen. Zer ahalmena haren memoriarena! El Salvador-eko Zaragoza-n ere erialdi luze batek oheraturik eduki zuen. Herriratu zenean, orobat, ez zen ez makinaz jotzeko, edo, inoiz gertatu bezala, trenean edo kotxean ibiltzeko gauza.

Hala ere, fisikoak baino gehiago penatu zuen min moralak. Hiru arantza arimaren soinean josita eraman zituen bizitza osoan zehar.



Lehenengoa haurtzarotik zekarrena zen: bi ama izan eta azkenean, berak esan bezala, amarik gabe gelditu izana. Bigarrena, jesuitetatik oildua izanez geroztik, apaizgorik gabe gelditu beharrak eman zion nahigabea. Hirugarrena, euskal letretan hain itzal handikoa izanda, garaiko euskaltzaleen artean aintzakotzat ez hartua izana. Onarpena heriotzaren atarian etorri zitzaion: Euskaltzaindian sartzea 1959an, eta "Lizardi" eta "Olerti" sariak 1961ean.



LANGILE EMANKORRA

Orixek, urrezko orrialdeak utzi ditu idatzirik, sorkuntz nahiz itzulpen-lanetan. Tradizio klasikoan ongi jantzia eta pentsalari bizkorra, lan erraldoia egin zuen, orohar, pentsamenduaren eta, zehazki, Filosofia, Teologia, Linguistika eta literaturaren eremuan. Orixek, aldi berean, itzal handiko literatur sortzaile eta ikertzaile izan genuen. Euskal literaturan ohizkoa ez den ezaugarria dugu hori.

Bizipen erlijiosoak biziki hunkitu zuen Orixek, haurtzarotik bertatik.



Orixek idazleak jorratu duen kultur soroa benetan emankorra da, aberatsa. Orixerik hurbiltzen zaiona, alde edo kontra jarriko da, baina beti zerbait esango dio. Haren luma, eguzkiaren pareko, argia eta sua darizkiona da. Esaldi laburrak ditu, elkarri ondo josiak, zuzenak eta biribilak. Ideiekin nahasian, bere biziak eskaintzen du. Inor izatekotan, bera dugu idazle pertsonala.

Orixek izan da bere belaunaldiko idazle eta euskaltzale gehien-gehienen erdigune edo, esana izan den bezala, bere garaiko autorerik errepresentatiboena eta euskal literatura guztiko autorerik garrantzitsuenak.

GIZON MISTIKARIA

Orixe ez zen mugatu soilki gai mistikoak lantzerantz. Orixek, landu baino oraindik areago, mistika bizi egin zuen nola bere praktika erlijiosoan hala bere barne-erretiroan. Berak bizi izandako fenomeno mistiko batzuen berri idatzirik utzi digu, "Lenengo gaiñezkaldiak" (1923-1931), "Orixe'n" (1931-1936), "Lurde'n" (1938-1939), etab. bezalako poesietan.

GIZON POLEMISTA SUHARRA

Honen eta horren kontra, baldin bere solaskidearekin ez bazegoen ados, ez zen geratuko bere eritzia agertu gabe. Pentsamenduaren eremu desberdinetan erizkide ez zituen askorekin egin zuen topo bidean zehar. Eztabaidarik izan zuen jadanik joanak zaizkigun Aitzol, Lauaxeta, Barrenso, Pierre Lafitte, Koldo Mitxelena eta abarrekin. Kritikaren galbahetik pasa zituen, bizidunen artean, Krutwig, Txillardegia, Joseba Intxausti, etab. Arrazoiarekin edo gabe. Dena dela, eztabaida horiek beude hor euskal historiaren lekuko.

Baina Orixe ez zen beti bakarrik ibili. Jesuitetan Estefania eta Olabide Aitak gidari eta adiskide izan zituen. R. M. Azkuek, Bilbon, hurbil-hurbileko lankide izan zuen Euskaltzaindiaren zereginetan. Andima Ibinagabeitia eta Jokin Zaitegiren lanak ere laket zitzaizkion. Baina gizon eta idazle gisa onetsi, Lizardi onetsi zuen. Onetsi eta miretsi (*P. I.*).


OLERTIA

Bi poesi mota landu zituen Orixek: epikoa eta lirikoa. Bietan agertu zuen nagusitasun nabaria. Edukinaren aldetik, berak espreski adierazi izan zuenez, gai mistikoak zitzaizkion gogozkoenak.

Poesia epikoan, funtsean, nekazal gizartean oinarritutako Euskal Herriaren bizitza eta ohiturak

kantatzen dituen *Euskaldunak* poema nagusia gailentzen da, 1935ean egina eta 1950ean argitaratua. Poesia lirikoan bere bizipen mistikoak eraginda sortutako *Barne-muinetan* izeneko liburutxoak ondu zigun, 1934ean argitaratua eta, bere ñimiñoan, preziatua dena. Orixeko bakardade bilduan burututako bi obra hauek eman zioten Orixeri sona handia, bereziki lehenengoak, euskal mundua poema nazional baten eske bait zegoen.

Ameriketako lanak: Argentinatik Guatemalara poema bat ("Berraondoko Meza", 1950-II-17).





10

Baina Orixek baditu beste hainbat poesia, gutxienik 100dik gora. Lehen urteetakoak 46 dira (1915-1923); ondoko bi bizialdi etenetan (Bilbo, 1923-1931; Iparraldea, 1938-1950) banaka batzuk baizik ez zituen egin; baina tarteko Orixeko aipatu egonaldia, eta gero Ameriketako, oparoak izan ziren: 31tik gora ditu azken honetakoak. Herriratuz gero, poesia gutxi egin zuen; baina egindako apurra baliokoa izan zen, batipat "Lau urtaroak nere begietan", 1961ean Tolosan "Lizardi" saria irabazi zuena.

PROSA

Berebaitariko lanetan, poesigintzan bezala, bi motatako emaitzen aurrean aurkitzen gara. Batetik, gai profanoak dauzkagu. Hauetan, epikotasunari datxekion ezaugarriari segituz, *Santa Kruz apaiza* (Bilbo, 1930) kontakizun-liburu atsegina utzi zigun. Edonon da Orixe narradore paregabeko, poesian ere bai; prosan, ordea, eta bereziki aipatu liburu honetan, landu bide du hobekienik kontalari-estilo hori.

Honelako estimua zion Lizardik Orixeren lanari (1930-V-1).



Bestetik, berak maiteenak zituen gai erlijiosoetan, bi lan maisu idatzi zituen. Bata da *Quito'n arrebarekin* deitzen dena, Orixan gogoeman eta El Salvador-en egin zuena (1954). Saiakera teologiko-mistiko hau izango da Orixeren obrarik, beharbada ez onduena, baina, bai seguraski, jenialena. Herriratu eta gero, azken operari gisa, jadanik Ameriketarik etxerako bidean lehen atala eginda zeukan *Jainkoaren bila* liburu goxoa mamitu zuen neke eta sofrikarioen artean. Gaiaren edukina *Quito'n arrebarekin*-en berbera da.

Orixek aurkeztu zuen jendaurrean Lizardiren obra hau.



SAIAKERA ETA ARTIKULUAK

Saiakera eta artikulu ugari idatzi zituen Orixek, denak batera ehundik gora aise, hainbat aldizkaritan argitaratuak.

Eremu zabal bezain gaitzak ukitu zizkigun: Estetika, "Antze eta eder" bezalako saiakeran (1951-1954); Filosofia, oraindik argitaratu gabeko lanetan; Linguistika aski luze-zabal, bereziki aditza, azentua, hizkuntza literarioaren batasuna, ortografia, euskal gramatika, toponimia, hiztegi-gintza, itzulpena, etab. Literatur gaiak behin eta berriz aztertu zituen: "Euskal-Literatura'ren atze edo edesti laburra" lanean (1927), edo poesiaz emandakoetan (1922, 1928, 1933, 1934, 1950). Eta folkloreak ere utzi zigun saiakerarik (1931, 1965). Erabilitako gaiak, ordea, askoz gehiago ere badira.

Orixek, literatur lanak sortu ez-ekiz, iraganaren oroimena berritu nahi izan zuen euskaltzaleen artean ("Euskal Esnalea", 1927).



11

ITZULPENAK

Orixek asko itzuli zuen eta zenbait gauza, adibidez mezaliburuko "Lauda, Sion, Salvatorem" eta "Stabat Mater" himnoak, maisukiro. Normalean, jokabide gisa, hitzez hitzeko itzulpenari baino itzulpen askeari jaramon gehiago egiten zion. Seguraski sorkuntzaren onetan eta zehaztasunaren kaltetan.

Jesus'en Biotzaren Deya aldizkarian eman zizkigun bere lehen itzulpenak. Gero, Bilbon, autore ez-ezagunaren *Tormes'eko itsu-mutilla* (bizkaieraz, 1929) eta *Mistral-en Mireio* (1930).

Itzulpenen artean, kontraera-, poesi eta pentsamendu lanak eman zituen Orixek.

Ipar Euskal Herrian, Donibane Lohizunen hain zuzen, egin zuen bere itzulpen-lanik handiena, *Urte guziko meza-bezperak* izenekoa euskarara aldatzen (1950). Epe biziki laburrean egin zuen eta, hizkuntzaren aldetik, ahalegindu zen herritar gehienek zerabilten euskarara hurbiltzen.

El Salvador-eko "El Miramar" finkan, hemengo giro epelean, itzuli zizkigun Dabiden *Salmutegia* eta Agustin Gurenaren *Aitorkizunak*, lehenengoa 1967an argitaratua eta bigarrena 1956an. San Agustinen latin bihurriak proban jarri zituen Orixeren euskararen ahalmenak. Bere bizitzaren azkenaldian, aski eri zela, Jon Gurutzekoaren poesia batzuk itzuli zituen (*P. I.*).

